

73. FITXA BIZKAIA - Bizkaia adin guztientzako lurralde bihurtzen lagunduko duten toki entitateen proiektuetarako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Adinekoekin Adeitsuak diren Hiri eta Komunitateei buruzko Dublingo Adierazpenari (2013) atxiki zaizkion Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri, mankomunitate zein udalerrrien partzuergoak, baldin eta OMEren proiektua ezarrita badute beren lurralde-eremuan, edo ezartzea erabaki baldin badute.

Sarbide-esteka: [Hasiara - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 19ko 141/2024 FORU DEKRETUA, Bizkaia adin guztientzako lurralde bihurtzen lagunduko duten toki entitateen proiektuetarako 2025erako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzen dituen Bizkaiko Lurralde Historikoan.](#)

Eremuak: Gizarte ekintza.

Zenbatekoa: 200.000 €.

Eskabideak aurkezteko epea: 2025eko urtarrilaren 20ko 00:00etatik 2025eko apirilaren 30eko 13:30ak arte.

Laburpena

Deialdi honen helburua Osasunaren Mundu Erakundearen metodologian oinarritutako **Hiri Adeitsuak Adinekoekin Proiektua** Bizkaiko Lurralde Historikoan ezartzen sustatzea da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Adinekoekin Adeitsuak diren Hirien Proiektuaren ezarpen-zikloaren etapetan sartutako jarduerak diruz lagunduko dira, **OMEren metodologian** jasota daudenak: plangintza, planaren gauzatzea, egindako prozesuen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza, eta, zehazkiago, honako hauek:

- a) **Mekanismoak ezartzea adinekoek proiektua prestatzen parte har dezaten.** Adinekoek teknikari, toki- eta udal-ordezkarri politiko eta komunitateko bestelako eragileekin osatuko dute proiektuaren talde eragilea. Talde eragileak, Bizkaia adin guztientzako lurraldea bihurtzea lortzeko, adiskidetasunaren diagnostikoan, ekintza planaren elaborazioan eta etengabeko hobekuntzan aktiboki parte hartuko du.

- b) Udalerri, mankomunitate edo udalerrien partzuergoaren **adeitasun-mailaren diagnostika** egitea, eta **ekintzako** eta **jarraipen-adierazleen** identifikazioko **plan** bat prestatzea, kontuan hartuta zahartze aktiboa baldintzatzen duten zortzi arloetako lau gutxienez. Arloak honako hauek dira: aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, partaidetza soziala, begirunea eta gizarte-inklusioa, hiriko partaidetza eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta Gizarte eta osasuneko zerbitzuak.
- c) **Gauzatzeko jarduketak.** Gauzatze-fasean, talde eragilearen mantentze-lanekin, proiektuaren hedapenarekin eta zabalkundearekin, kanpoko eragileekiko koordinazioarekin (OME, Euskadi Lagunkoia, tokiko erakundeak, udalerriko elkarteak eta enpresak...) eta proiektuan parte hartzen duten pertsonen dinamizazioarekin zerikusia duten jarduerak baino ez dira diruz lagunduko.
- d) **Ekintza-planaren gauzatzearen jarraipen-, ebaluazio- eta kontrol-jarduketak.**
- e) **Etengabeko hobekuntzarako jarduketak.**

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xedea betetzeko, jarduketan epea **2025eko urtarrilaren 1ean hasi eta 2025eko abenduaren 31n** amaituko da.